

Familiako bizitza 'reseteatu'

18. saioa

Familia da konfiantza hartzen joateko aukera ematen digun erakunde oinarrizko eta lehena. Batzuetan, denoi dagokigun maitasunaren ideala (1 Kor 13, 4-7) ahuldu egiten da eta orduan agertzen dira familia bizitzan barkamena eta adiskidetzea. Jainkoak eskaintzen digun barkamenak askatu egiten gaitu eta duintasuna itzultzen digu.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Barkamena behar duen egoeraren bat –pertsonala edo familiakoa- antzeman
- Barkamena eskaintzearen eta jasotzearen poztasunaz gozatu
- Adiskidetzea ospatu
- Jainkoaren maitasun errukitsua aitortu

Haurrak:

- Gurasoen eta Jainkoaren maitasuna eskertu
- Aita onaren parabola beren hitzez kontatu
- Barkamena eskaintzearen eta jasotzearen poztasuna antzeman

GARAPENA

Bananduta ekingo diote saioari heldu eta hurrek eta azkenean elkartuko dira, abesteko eta otoitz egiteko.

HELDUAK

Eragileak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie, landuko, biziko edo gogoratuko diren funtsezko gaiak aurkeztuz: barkamena jaso izanaren esperientzia pozgarria; barkamena ematearen esperientzia pozgarria; adiskidetzearen garrantzia familia bizitzan...

Isiltasuna egiteko, geure barruari entzuteko, hainbat ariketa egingo dugu, erlaxatzeko: jarrera eroso bilatu, gure gorputzaren atalez jabetu, burutik zarata guztiak uxatu, arnasketak egin... Lagungarri izan daiteke musika gozoa jarrita izatea...

Egoera horretan, eragileak hauxe eskatuko die partaideei: idatz dezatela paperean, "reseteatzea", "barkatzea" edo "barkatua izatea" behar duen egoera pertsonala edo familiakoa. Bakarka egiteko ariketa da eta ez da nahitaezkoa hausnarketa hau taldean batera jartzea. Hamabost-hogei minutu utziko ditugu horretarako eta musika jarrita dela

egin daiteke hausnarketa. Papera gordetzeko eskatuko zaie... Gero, ospakizunean, bota, erre egingo dugu.

"Barkamena eta adiskidetzeta. Familian elkar barkatzen dugu", idazkia taldean irakurriko dugu eta, ondoren horren inguruan bururatutakoa esango dugu. Ondorengo galderak lagungarri izan daitezke hausnarketarako.

- Begira dezagun gure bihotz-barrura... zein jokaera, jarrera aldatu beharko luke gutariko bakoitzak, San Paulok proposatzen digun eredura iristeko (edo gutxienez hurbiltzeko)?
- Gogoratzen dugu esperientziaren bat non norbait barkatu dugun edo norbaitek barkatu gaituen? Zein sententzio gogoratzen dugu?
- Esperimentatu dugu noizbait barkamenaren esperientzia sendatzailea? Adierazi egingo dugu.
- Zer iruditzen zaigu, zer diosku Jesusen barkamen-proposamenak? Nola eragiten du gure jokaeran?

Barkamena ezinbestekoa dugula ikusarazten digu ondorengo estekan ikusiko dugun bideoak:

<http://www.quierover.org/portal/watch.php?vid=1831eea5e>

Idazkia aztertu eta bideoa ikusi ondoren, pentsatu: zein urrats eman behar du bakoitzak barkamenaren bidean aurrera egiteko, adiskidetzeko, lehenik eta behin norbere buruarekin eta, ondoren, familiako senideekin. Aurretik idatzitakoa kontuan hartuko da. Oraingoan ere, idatziz jaso dezatela, izan ere, horrela, zehaztu egiten dugu, bai pentsamendua eta bai ekintza.

Taldeko giroaren arabera, eragileak idatzitako esperientzia horietako batzuk balizko ospakizun batean batera jartzeko aukera aztertuko du. Taldeak adiskidetzearen ospakizuna egiten du, keinuren bat egin daiteke paperekin: saskira bota, erre...

Aitagurea errezatuz amaituko dugu.

HAURRAK

Zirkuluan jarrita, arnasketak egingo ditugu, giro lasaia lortzeko. Begiak itxi ditzatela, eta musika jarrita dagoela, gogora dezatela uneren bat non elkarturik izan diren familian jaiegunaz gozatuz, izadian paseatuz, senitartekoekin –aiton-amonak, lehengusu-lehengusinak...- bat eginez. Gogora ditzatela, baita ere, gurasoekin bizi dituzten une bereziak: besarkatzen gaituztenean eta maite gaituztela esaten digutenean, gurekin jolasean aritzen direnean, elkarrekin hainbat gauza egiten dugunean... Minutu batzuen buruan, begiak irekitzeko esango diegu eta nola sentitu diren, norekin egon diren, zein egoera gogoratu duten... galdetuko zaie.

Giro honi eutsiz, "Seme xahutzailea" edo "Aita ona" parabolaren bideoa ikusiko dugu. Eragileak, semearen jarrera ez ezik, Aitarena nabarmenduko du, beti baitago adi bi semeen beharrei erantzuteko eta beti baldintzarik gabe maitatzen duelako. Bigarren aldiz ikusi eta honetaz jabe daitezela eskatuko diegu: aitaren jarrera, semeen jarrera, aita seme bakoitzari esaten diona...

Bideoa hirugarren aldiz jarriko dugu, baina oraingoan soinurik gabe. Hurrek egin dezatela kontakizuna beren hitzez.

"Seme xahutzailea" edo "Aita ona", haurrentzat:

<https://www.youtube.com/watch?v=vgAtzFw1wgg>

AMAIERA ELKARREKIN

"El amor de Dios es maravilloso" abestia ikasiko dugu. Hona hemen esteka:

https://www.youtube.com/watch?v=cq9QKQcso_c

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso

¡Grande es el amor de Dios!

Tan alto que no puedo estar mal alto de Él.

Tan bajo que no puedo estar abajo de Él

Tan ancho que no puedo estar afuera de Él.

¡Grande es el amor de Dios!

ADISKIDETZEAREN OSPAKIZUNA

Taldeari adiskidetzaren ospakizuna egitea proposatuko diogu Saiorako materialen karpetan dago gidoia ("Familiako bizitza reseteatu") eta sakramentu-ospakizunari dagokio. Gai honi edo gai-multzoari amaiera emateko balio du.

Ahal izanez gero, adiskidetzaren sakramentua ospatzeko dei egiten dizuegu.